

JOSE I. ZINKUNEGI (1886-1964)

(Omenaldia Errexil'en, 1986-11-22)

Jaun andreok:

Negu naiz uda, urtean zear beti, alai ta eder dugun Errexil'en gagoz, bertoko gizaseme argi bat goretsi ta omendu nairik. Errexil'ek, lur onak bezela, gizon eta emakume asko eman ditu, jakituriz ta egite arrigarriz ospe aundikoek izan diranak. Azken urteotakoak besterik ez aitzeko, eta oraintxe gogoratzen zaizkidanak, or Basarri bertsolaria, or Tomas Agirre eta beronen arreba Dolores euskal idazleak, or Uzkudun, or karmeldar Aginagaldetarrak, or gure Jose Zinkinegi omendu nai duguna ta beronen anai Aita Blas karmeldarra, ainbat urtetan India'n mihiolari izana. Eta olantxe beste ainbat eta ainbat.

Jose Indalezio Zinkunegi

Neure «Euskal Literatura»-n onela idatzi nuen nik, gizaseme onen fitxa egiten astean: «Sendalari ta euskaltzale. Eredu bikaña ikusi ta ikasi nai duenarentzat. Bi arlotan langille aintzagarri. Barnean zuena egitez adierazten alegindu zitzaigun, bere bitzita osoan. Gizaseme jatorra, euskaldun fededun. Zarata aundirik atera ez arren, Zarautz'en zeukan bere txokotik, mediku ta euskal idazle bezala etengabeko lana egin ziguna».

Errexil'en, ementxe jaio zan gure omendua, 1886-ko jo-

rraillaren 29'an. Valladolid'en ikasi eban mediku karrera, eta ikasketak amaituta laster Zarautz'en jarri zen osakidetza lanean. 1914'an ezkondu zan Aia'ko alaba zan Marzelina Zabala'rekin: zazpi seme-alaba izan zituzten, bost mutil eta bi neska.

Zintzo agertu izan zan beti bere lanbidean. Orrez gaiñera, ba-zitun bere zaletasunak: irakurle porrokatua genuen, liburute-gi ederra zeukalarik. Guraso ta kristau bezala noiz-nai ta nun-nai eman zuen ikasbide ezin-obeia. Jakintsu zanez, maite zuen ixiltasuna, eta pentsatzea. Berezko bait du gizonak gauzak barnez, muin-muiñetik zer diran ezagutu nai izatea. 1964'an il zan.

Euskal idazle ugaria

Barruan griñaren bat dakarkigunean, errez zabaltzen dizki-gu atsak griña orri. Zinkunegi'ren griñetatik bat, euskal arloari ekitea zan, idaztea, eta asti-unetan batez ere, bizitza guztian ekin zion idazteari. An 1914'garrenerantza asi zan idazten; urte orretan beñik-bein Bilbo'ko «Euzko-Gaztedijak» eratu zuen ipui sari-keta bat, eta saria jaso zuen bere «Euskal-ertijak eta abertzaletasunak» lanaren bitartez. Donostia'ko «Euskal Esnalea»-k eraturakoan berdin, eta Bilbon Euskaltzaindiak eraturakoan.

Lan jatorrak, au da, berak bere erraietatik atera zitunak dauzka Zinkinegi'k eta itzulpenak. Jatorrak eta argitaratuak, «Eusko-Abenda», «Kirolak», «Kepa Deunaren Ollaskoak» eta abar; itzuliak, Kanpion'en «Erraondoko azkenengo atalaria», «Pepatxo», «Yan-Pier Bidart»; «Zigor», «Pedro Mari»... arek egin zuen itzulpenik bikaiñena; ala ere, «Irizpidea» dugu, Balmes'en «El Citerio»; ontaz gero itz-egingo digute.

Dirurik ezagatik edo, argitaratu gabe 17 idatzi naikoa luze utzi zituen. Ona: Sales'tar Frantzisko Deunaren «Oneraspen Bidea», «Ferval apaizaren ixilpekoa», «Nora eraldu zuten Petrus, maitasunak eta aztikeriak», «Ibarrola», «Aur ezkuntza», «Yon'ek edaria, zergatik utzi zun?», «Ukorkeriaren aurkako irakaskintza», «Kisto sendian», «Osasun bidearen amarkuma», «Euskal iztegia», «Ume erretzalleak», «Asmatzen?», «Edari ugerduneri buruz amar

iritzi», «Osasunaren amar aginduak», «Ugorra» (alkola), «Yate-
edateari buruz esakun yakingarriak», eta «Aurren osasun ona
adierazten duten aztarnak». Berea du baita «Illak il» ipuia ere.

Gerra aurretxoan, Bruño argital-etxea, Zarautz'eko Lasalle-
tarrakin batera, euskal Zenbakizti edo Aritmetika bat agertzeko
asmotan zebiltzala, an zan gure Zinkunegi ere. Idazle jator eta
eder bezela, Seber Altube'k bere «Erderismos» liburuan txaloak
jotzen dizkio. Eta, izan ere, ba-du nortasuna errexildar argi
onek, euskeraz jartzeko aukeratu ta itzuli zizkigun liburuetatik
atera genezakenez.

Idaztiok ez ote dute merezi, daukaten autsa astindu ta argi-
tara ematea? Nik uste, euskal literatura zorretan dagoela euskal
idazle aundi onekin. Eta zorrak ordaindu egin bear dira. Idatzi
oiek azaltzea eder litzateke gure kulturarako ta euskeraren one-
rako. Onartua izan bedi nire iritzi ta eskabide au.

Izlari erne

Idazteko ez-ezik itz-egiteko ere erreztasun aundia zeukan.
Eta onen testigu bezala, aren itzaldi bi ditut nik oso interesga-
rriak «Eusko-Abenda» ta «Kirolak»; biak Donostia'n emanda-
koak, leenengo 1919'arren urteko jorraitaren 6'an eta 1925'g.
urteko jorraitaren 19'an. Biak ditugu gai arruntak, baiña jakin-
garriak garai artarako eta gaurko, ordutik ona ia-ia irurogetamar
urte joanak izan arren. Luzeegi ez egiteko ta zuek aspertu, biok
laburki azalduko dizkizuet.

a) Eusko-Abenda

Eusko abenda, erraza, bere sendotasuna bala-bala zebillen
liburuetan eta itzaldietan. Ezta arrigarri, bakoitzak berea zaindu
ta goretsi bear du-ta. «Gure zañetan eusko odola daramagunok
osatzen degun abenda, pizkorra, sendoa ta zaintsua zalako jakin-
tsuak ala aitortzen zuten» diosku asiera-asieratik Zinkunegi'k.

Eta eusko-abenda au, gure erraza, sendo ta bizkor ikusi nai
du; len bezala orain eta aurrerantzean berdin, beti sendo ta in-

dartsu. Baiña gure asaba ta aurretikoen indar eta kemena, sendotasuna, auldu ta gutxituz doala edozeñiek igartzen duana da. Eta onek naigabetzen zuen Zinkunegi, oraingo gizona ez omen da lengoa, aulago ta erkiñago baizik. Samingarri zitzaion au, baiña ez samingarriena, ba-zan beste zerbaít min aundiagoa ematen ziona. «Geiago samindu izan nau -jarraitzen du- abendaren beerratza au, aultze au, endakatze au, naitaezkoa, alabearrezkoa, gelditu ta eragotzi eziñekoa dala erriak uste duala oldozteak».

Gauzarik txarrena dugu, izan ere, «al izan» eta «ezin dut» esatea. Euskaldunak ere oker ori zuen barru-barru sarturik. Ernio'ra igotzeko, «igondo dut» esanik alegiñak egin bear dira. Euskaldunen oker ori zuzendu ditekena da. «Abenda berriz indartu diteke, sendotu diteke. Zer egin! «uste oker orren orde bestea uste zuzena» au da, baikorra sartu eusko-abendatarren artean. Ala ere, gauza bat iritxi ditekena dala uste izatea bakarrik ez da naikoa. Eta adibide bat jartzen du: lurrean erein dan aziak berotasuna ta ezkotasuna bear ditu erne ta azteko; usteak ere egitera eltzeko nai izatearen berotasuna bear. Eusko-abenda ez da bizkortu ta obetu eziña, nai izate bero-indartsuaren bitartez lortu litekena dugu.

Osagille da Zinkunegi ta berak dakienetik derakar obetu leitekena dala enda eroriz ba dijoa ere. Ori adierazi ta ziurazteko Bizkaiak eta Gipuzkoak eman izan dizkigun gizaseme sendo ta indartsu asko dakarzkigu gogora, Altzo'ko tantaia, Migel Eleizegi beren artean. Eta gure dantzak aztertzen ditu, gure jolasak goratu. «Eusko-abendak -diño- sortu dituan edo beretzakotu eta erabilli dituan jolas, dantza, joko ta oiturak, naiko argitasun ematen dute abendaren sendotasuna ikusteko; pordon-dantza, brokel-dantza, jorrai-dantza, ezpata-dantza, ez dira gizon aul eta erkiñen dantzak, dantza oyek sendotasunak berak eratorri dituen dantzak dira. Ikusi ala dan edo ez; ara makil-dantzariak, ara zortzikoa dantzatzen».

Eta karga-jasotzaillek aipatzen ditu, pelotariak, palankariak, upel eta irin-saku ikaragarriak erabiltzen dituzten errotharriak. Baserriko lanetan erabiltzen dituzten tresna ta tramankuluak: gol-

de, lai, are, igitai, segea. Zer ez? Auek darabiltzanak naitaez sendo ta indartsuak izan bear. Eta euskaldunek etzuten au beren jolas eta jaietan bakarrik erakusten, beren eguneroko lanak ere jolas antzera egiten bait zituzten? Aitatu ditudan aizkoraketa, arri-zulatz, arraunketa, estropadak, ez dira joko utsak», naiz-ta euskaldun askok jolas antzera egin. Eta onetan ez dira agiri gizonekoak bakarrik, emakumeak ere berdin ikusten dira. Eta leiaketa azpimarratzen du, eta gari-ebaketa, ira-ebaketa mendian... etxe-koak senar-emazte ta seme-alabak burutzen dituzten lanak.

Eta zerk ekarri ote du beera gure ebenda zar au? Eragille asko aitatu genezake, bai Zinkunegi'ren egunetan eta bai gaur. Baiña bat, ain zuzen, guztien gaitetik eta guztien iturburu bezela, au da, alkool-grifa, zalekeria. Onela idazten digu: «Au da gure abendaren kaltegillerik aundiena; au da euskaldunak bizi, adoretu, zinzifiaz eta gure indar guziz kaltezu ta aurrezkatzen ez badegu, eusko-abenda menderatu, purrukatu, ondatu, zirtzildu eta ezereztuko duana».

Eta ardoaren grifa bizi ori adierazteko, Meagher bertsolariak beifola esan zuena dakar gogora:

«Gizon bat ardo bage
dago erdi-illa,
marmar dabilta tripak
ardoaren billa.

Baiña edan ezkeru
ardo txit ongi,
gizonik txatxarrenak
balio ditu bi».

Egi utsa. Gure gizonak sarri, trabenán jakintsu, berritsu ta tratulari. Eta edán-tokitik kanpo, erdi zerbel, mozkor, adimen illun, zabuka, ibilli ezifrik, gizona bai parregarri! Onek kalte izugarri egin dio gorputzari. Eta animeari? Ala ere mozkor bat, tira! Baiña egunero asko edaten duenari ondoren kaltegarri berberak etortzen zaizkio. Bai, gizonari ta abendari era orretan etortzen zaizkion kalteak izugarriak dira. Abendari, baiña, beste era batera kalte aundiagoak datozkio.

Eta ontatik datozen gaitzak aitatzen dizkigu Zinkunegi'k ondoren, naiko zabal eta luze aitatu ere. Zabarreria edo sifilis, gaitzepela, biotzeko min, alotz, ergel, zoro, garunetako min, ki-

riotzako gaizdun eta abar, onako gaixo-mota asko. Eta azkenez beste au ere bai. «Gaizki egindako ezkontzak -dio-, ezkondu bear ez lutekenak ezkondua abendari zuzenean kalte egiten dioten beste batzuek ba-dira: ezkontzen ez diranak, mutil-zarrak dira». Gaizkilleago dira auek, gaixotasun geiago biltzen dutenak. Onela bukatzen digu: «Abendaren sendotasuna ta indarra abendarren sendotasunak egiten du, baiña baita ugaitasunak ere; eta ugaritasuna ori irixteko bideak ez jartzea, zearka bada ere abendari kaltea egitea da».

Orain, bada, gauden istori-momentu ontan galdetu geinke: Zinkunegi'k au esan zuenetik ona urteak joan dira, eta gure endak, errazak onera ala txarrera egin otedu? Obetu ez dut uste, bai ordea gaiztoago biurtu: arrezkero, leen ezagun etziran gaiztik asko dauzkagu geienez! Erakusten ote dute gure endak duen adore ta bizitasunik? Bai zera! Lizunkeria bai, baiña besterik ez! Zer esango ote luke gaur gaztediaren eta zaar askoren bizimoldea ikusiz, errexildar osagilleak?

Eta senda-biderik? Bai eta leenengoa: euskaldunen buruetan sartzea, gure endaren zoritxarrak ba-daukela oraindik osatzeko beste bide. Eta ona zeri ematen dion batez ere garrantzi aundia. «Sendoak diranak -idazten du- sendoagotzeko edo beren sendotasunean irauteko beintzat, eta aulduak daudenak sendotzeko, guzientzat dira onak, onak ez, bear-bearrekoak, kirolak, aur, gazte, zarrentzat; batzuentzat gogorrakoak bestientzat baiño, bakoitzari dagozkion maillakoak; eta gure abendaren jolas, joko ta dantzen artean guzientzako egokiak bai daude».

Ondorioz, bada, gure abenda gaixotua, auldua sendatu ta indartzeko, kirolak ditugu onenak. Kirol-arloan, berriz, gaur ere ez gabiltza orren gaizki. Or futbola or mendi-zaletasun, or ondartzeta.

b) Kirolak

Ernio'ra naiz Izarraitz'era joateko bide asko dauzkagu, batzuk errezagok beste batzuk baiño. Baita gure gorputzak naiz

animeak ditun gaitzak sendatzeko ere. Gure erria gaur, ots, gure enda gorputz eta anima dago gaixorik. Gudan iskilluak bear dira eskuetan burrukan irabazteko; gure erriaren aulezia osatzeko, adimena bear dugu garbi ta sendo, biotza lanerako kementsu, eta leengo kirolak, gure asaba ta gurasoen kirolak, bertokoak aurrena ta kanpotik artu ta geuretuak ondoren.

Kirol-zale genduan Zinkunegi, eta, beti geure endari begira, beste itzaldi bat eman bear izan zuen Donostia'ko areto oian, 1925g. urteko jorraitaren 19'an. Gaia: «Kirolak, ongille ala kaltegarri?»

Eta itzaldiaren leengo lerroetatik, gaurko gure giroaz balabil bezela, onela diardu: «Gaur dan egunean kirolak guztia betetzen dute: gazteen eta gazte ez dira askoren buruetan ez dago beste gauzarik; bere biotzak kirolzaletasunak asetzen ditu; kiroltzazko bere izketaldi ta jarduna agortzen ez dan iturria da. Orduan ere, kirola nun an jartzen zuten beren oiña, gaur bezela ain zuzen ere. Eta zaletasun batek ainbeste zabaltzen danean, ainbesteko garra gizartean jaiki-azten duenean, olakoak errien etorkizunari zuzenbide bat ezartzen dio.

Zinkunegi'k ala ere ba-ditu bere dudamuak. Zuzenbide ori ta joera au onerako edo txarrerako izan ditezke, eta arek bertatik galde: «Gaurko kirolak eta kirolzaletasuna onerako ala kalterako ote zaizkigu? Onak ondo ikusten ditu, ark ordea ez. Eta zer dira kirolak? Labur esateko, jolasak; aldia alai ta atsegintsu emateko bidea. «Iñola ere ez dagokie -dio- beste maillarik». Jolasa bearrezko du lan egiten duenak, bai adimen lanetan, bai esku lanetan aritzen danak. Osasunari bear bezela begiratu bear zaio. Kirolak, beraz, askorentzat onak izan ditezke, eta dira.

Osasuna ta indarra, baiña, ez dira berdip: «Indar gutxi ta osasun ona izan dezake batek, baita indar aundia ta osasun gutxi ere» Euskalduna beti izan da indarzalea. Eta zaindu du bere gorputza osasun ona eukiteko? Eta emen diardu Zinkunegi'k jakituri aundiz osasuna zer dan, nola zaindu bear dan eta gaiñerakoak ederki azaltzen. Osasun ona izateko soin edo gorputz-atal

guziak neurritz zaindu bear dira; ezabela bai ta begiak ez, bai burua ta besoak ez. Gorputz osoa, eta gorputzari kemena ezartzen dion animea. Onetaz asko luzatuko nuke neronek ere aren irakatsiak azalduz.

Kirolan artean ez du futbola bakarrik aipatzen: lasterketa, txirrindularitza, pelota, igeriketa, mendi zaletasuna ta abar. Gaur, ordutik ona sartuta beste kirol batzuk ere ezagutzen ditugu Euzkadi'n. Auetatik, zeintzuk ote dira onenak? Gorputzari, bere atal guztietan, igikun edo mugimendu geien dakazkienak. Gorputzari lan eragin bear zaio. Eta ain zuzen gorputzari ta animari dagokien lanari buruz amaitzen du bere itzaldia.

Gorputzaz onela dio: Lana osasungarria da, osasunarentzako bear-bearrezkoa; lanean billatu bear degu beraz lenengo gorputzak bear duan igikuna, eta kirolean eta beste soñickaldietan igikunoten osagarria, soñatal guztiak artu dezaten igikunen onura. Malla orixe ta besterik ez dagokie kirolai; or ongi daude; or goralgarriak eta osasungarriak dira; ortik beste batera aldatu ezker, ez ta ez».

Eta animeari buruz, onela: «Gorputz-atalak bezelaxe gogalmenak ere beren igikunak beren kirolak bear dituzte; adimena ere erabiltzeko, lan egiteko eman zaigu; kiroleaz eta jolazeaz baño zerbait geiagor itzegin eta arazotu bear du gizonak. Izparringietako kirol-atala baño zerbait geiagor irakurri bear du adimendunak. Luzaro geldi dagoan gorputz-atala igartu egiten dan bezelaxe, lanik egiten ez duen adimena ere illundu eta itzali egiten da. Eta argi au itzaltzen ba-zaigu, zer alde eukiko degu abereekin?»

Amaituz, emen J. Zinkunegi'ren bi itzaldien mamia. Min ematen zion biotz barruan eusko endaren ondatzeak. Eta nolabait ondatze oni euskaia jarri nairik, azaldu zigun bere iritziak, eskatzen ziona, sakon eta ederki azaldu ere. Onak dioskunez jakintsua zan, eta ba-zekian nola adierazi euskeraz barruan zekarena. Nire eritiziz, bada, merezi ditu gurc txalo beroak.

Aita Onaindia